

Egun on guztioi

Agurrarekin batera, mila esker: mila esker Juan Mari Lekuonaren familiari, Literatura batzordeko kideei., hemen zaudeten euskaltzain oso eta urgazleei, Oiarzungo Udalari, inprentako langileei... Eskerrik asko guztioi.

Niretzat, gizalegezkoa da Juan Mari Lekuonak utzi zigun emaitza ederra aitortzea. Baina gaur azpimarratu nahiko nuke beste Juan Mari hori, Juan Mari pertsona, laguna, adiskidea.

Liburu honekin pausu bat ematen dugu, eta horren bitartez, Juan Mari Lekuona bera eta bere produkzioa gero eta erkidegoa dugu. Juan Mari Lekuona erkide egin behar dugu, gu guztiona baita. Era berean, haren lana zabaltzen eta gizarteratzen jakin behar dugu, euskararen eta euskal kulturaren mesederako.

Gaurko ekitaldi hau lehena da, baina honek segida behar du, eta aurrerantzean ere Juan Mari Lekuonaren lana ezagutarazi beharko dugu.

Azken eskerrak Juan Mari Lekuonari berari eman nahi dizkiot. Eskerrak zuri, Juan Mari, eta ohore, zuk zeuk utzi diguzun ondare hori ederra ez ezik, eredugarria ere baita.

Donostian, 2008ko azaroaren 14an
Andres Urrutia, euskaltzainburua